

IRAGARKIA

Udal honetako Osoko Bilkurak, martxoaren 30ean egindako batzarrean, Udal honetako Euskeraren Normalizazio eta Erabileraren Sustapenerako Udal Ordenantzaren behin-betiko onespena onartu dau, eta ordenantza horren testu osoa argitaratzen da.

Bermeon, 1998k, apirilaren 1ean.-Alkatea,

EUSKERAREN NORMALIZAZIORAKO UDALORDENANTZA

SARRERA

Euskera Euskal Herriko hizkuntza názionala dan ezkeru, Bermeoko Udalerrri eta Udaleko hizkuntza da.

Udal honen helburua, euskera hutsean jardutzea da, Ordenantza honetan sartutako salbuespenak kontutan hartuko badira ere.

Ordenantza honek Euskeraren Normalizazio Eta Erabileraren Sustapenerako Udal Ordenantzaren forma juridikoa hartuko dau.

Beraz, Udalaren politika linguistikoa, euskera sustatzeko eta erabilera areagotzeko bideak urratzean datza. Hori honela, eta besteak beste, puntu honeetan oinarritu beharko da:

1. Euskera Udalean eta Herri osoan normalki erabiltzea.
2. Derrigorrean, elebitasun orekatu bat izan daiten saiatu.
3. Epe ez luze baten barruan, euskera lanean, jolasean eta harreman guztietan jardutzeko gaitasuna izateko tresnak jarri.

Hala ere, Euskadiko biztanle guztiek, baita, neurri baten, mugaz bestaldeko hiru herrialdekoek eta Nafarroako «zona vascofona» deritzonakoek ere, bi hizkuntzak erabiltzeko eskubidea daukienez, bai idatziz, bai ahoz, Bermeoko udalak zera azpimarratu nahi dau:

a) Udalagaz eta bere menpe dagozan Udalez kanpoko erakundeekaz harremanak euskeraz izateko eskubidea daukala edozeinek.

b) Udalak elaboratzen dauzan edo bultzatutako azterlan, proiektu, txosten eta antzekoak euskeraz egiteko benetako eskubidea izango dabe.

c) Udal argitalpen guztiak, eta Udalak komunikabideetan argitaratzen dauzan era guztietako publizitatea, iragarki, jakinarazpen ofizialak ere euskarazhartzeko eskubidea dauka.

d) Administrazioko lanjardunak eta harremanak euskeraz izatea.

e) Administrazioko langileek eta karguek euskera erabiltzea.

I. APLIKAZIO EREMUA

1go Artikulua

Bermeoko Udaleko administrazioan eta udal zerbitzuak zuzenean edo zeharka kudeatzeko eratzen diran entitateetan, hau da, Erakunde Autonomo edo Enpresa Publikoetan, euskeraren erabilera, ordenantza honetako xedapenetatik eratorritakoekaz arautuko da.

II. HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA

2. Artikulua

Bermeoko Udalak euskera erabiliko dau bere harremanetan, ordenantza honetako artikuluen aplikaziotik eratorritako kontsiderazio eta zehaztasun guztiekaz.

III. BARRUKO ERABILERA

3. Artikulua

Barruko administrazio izaerako jarduera guztia euskeraz izango da, eta telefonozko harremanak, irрати bidezkoak, eta orokorrean ahozko harreman guztiak; udal enplegatuen artekoak barne diralarik, euskeraz izango dira.

4. Artikulua

Bermeoko udaleko Sail eta organo ezbardinetan erabilitako inprimaki guztiak euskeraz egingo dira.

5. Artikulua

1. Bulego, langela, antzeko tokietako errotulazioa, nahitaez, euskeraz egongo da.

2. Zigiluak, tinbre zigilatuak eta abar, euskeraz egongo dira.

6. Artikulua

Programa informatikoak eta eskuratuko dan gainerako materiala euskeraz izan beharko da.

7. Artikulua

Bermeoko Udalak, Euskadiko Lurralde eremuan bizi diran edo egoitza daukien hirugarren pertsona fisiko edo juridiko batzuei agindutako aztertanak, proiektuak eta antzeko lanak euskeraz aurkeztu beharko dabez. Hala nola, Udalak beragaz kontratatzen daben kontratistekaz izango dauzan harremanak euskeraz izango dira eta ez jakela itzulpenik egingo aurrikusi beharko jake, sinatzen diran kontratu guztietan jarri beharko dalarik baldintza hori.

Zerbitzu publikoen kontzesiodunei, edota jendaurreanlan egiten daben Udal ondasunen erabiltzaile edo kontzesiodunei, euskeraz egin beharraren baldintza aurrikusi beharko litzakie jagokozan pleguetan.

Udalaren obra eta zerbitzu publiko guztietan, kartelak euskeraz jarrita egon beharko dira. Bermeoko Udalaren izenean jarduten diran guztiak, pertsonalgo zein kontratista, ahal dan neurri guztian, euskeraz jardungo dira.

IV. ERAKUNDE ARTEKO HARREMANAK

8. Artikulua

Euskal Herri osoko eremu barruko Herri Administrazio eta Organismo Ofizialetara Bermeoko Udalak bidaltzen dauan dokumentazio guztia euskeraz bakarrik izango da, edo ezinbestekoan euskeraz eta erdaraz.

9. Artikulua

Bermeoko Udalak, Euskal Herri osoan kokaturik dagozan Herri Administrazio edo Organismo Ofizial guztiei, Udal honetara bidalitako dokumentazio guztia euskeraz bidaltzeko eskatuko jake.

10. Artikulua

Euskera ofiziala dan eremuko Administrazio eta Organismoetatik erdara hutsean datozen idazkiak edo dokumentuak, itzuli egingo dira, euskeraz ere bidaltzeko eskatuz.

11. Artikulua

1. Bermeoko Udalak Euskal Herriko eremutik kanpoko herrialdeetara bidalitako dokumentuak eta idazki guztiak, euskeraz eta erdaraz idatziko dira.

2. Bermeoko Udalean Mozioak aurkezten diranean, Euskal Herriko eremutik kanpoko Herri Administrazio edo Organismo Ofizialetako agintari edo organoetara bidaltzea proposatzen danean, euskeraz eta erdaraz idatziko dira.

12. Artikulua

Bermeoko Udal honetara, Euskal Herriko eremutik kanpoko beste Administrazio edo Organismo Ofizial batzuek edozein hizkuntza ofizialetan bidalitako dokumentu eta idazki guztiak onartuko dira.

V. ADMINISTRATUEKAZKO HARREMANAK

13. Artikulua

Udalerriaren eremuan edo Euskal Herri osoan egoitza daukien pertsona fisiko edo juridikoari zuzendutako berriemoteak eta jakinarazpenak euskeraz izango dira; betiere, norbaitek eskatuko baleu, Euskera Zerbitzuko itzulpen zerbitzuak eskainiko jakozalarik.

14. Artikulua

Euskal Herriko eremutik kanpoko pertsona fisiko edo juridikoari zuzendutako berriemoteak eta jakinarazpenak euskeraz eta erdaraz izango dira.

15. Artikulua

Udal Administrazioak onartu egingo dauz, pertsona fisikoek, interesatua bizi dan lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan, Udalari zuzendutako berriemoteak.

16. Artikulua

Bermeoko Udaleko inprimaki guztiak euskera hutsean izango dira. Euskal Herriko eremutik kanpora bidali behar badira, euskeraz eta erdaraz idatziko dira.

17. Artikulua

Udal langileen lehen hitza euskeraz izango da eta euskeraz zuzenduko jake herritarrei eta Udalera datozen guztiei, komunikatzeko hizkuntza euskera izango dalarik. Hala ere, herritarrek aukera izango dabe eurek nahi daben hizkuntzatan atenditzeko.

18. Artikulua

Udalak sinatzen dauzan kontratazio dokumentuak euskeraz idatzita egongo dira. Dana dala, interesatuak nahi izanez gero, Euskera Zerbitzuko itzulpen zerbitzuak eskainiko jakozalarik.

VI. OHARRAK, ARGITALPENAK ETA JARDUERA PUBUKOAK

19. Artikulua

Udal Administrazioko eta honen menpe dagozan erakundeen xedapenak euskeraz argitaratuko dira beti, baina derrigorrean, euskeraz eta erdarazko bertsioak egingo dira.

20. Artikulua

Udal honetako Aldizkariak, kartelak, eta, orokorrean, argitalpen guztiak euskeraz argitaratuko dira; hala ere, hedapenak edo ulertezinak horrela justifikatzen badau, laburpena erdaraz egingo da eta, honek ezin izango dau % 25a gainditu. Euskal Herritik kanpoko sustapenerako zehazki zuzenduak diranean, honeek euskeraz eta erdaraz egingo dira.

21. Artikulua

1. Udal honek, bere menpean dagozan udal zerbitzuak zuzenean edo zeharka kudeatzeko eratutako erakunde zenbaitek sortarazitako edozein motatako abisuak, iragarki publikoak edo publizitatea euskeraz izango dira. Hala ere, derrigorrean euskeraz eta erdaraz idatzi daitezke, betiere, euskerazkoek lehenasuna izango dabe, hau da, aurretik jarri beharko dira eta euskeraz idatzita dagoana, gitxienez, hizkia bi aldiz handiagoaz idatzikodalarik.

2. Euskadiko lurralde eremutik kanpora publizitate horrek eragina daukanean, euskeraz eta erdaraz idatziko dira.

22. Artikulua

Administrazioko karguen jarduera publikoa euskeraz egingo da.

VII. ERREGISTROAK

23. Artikulua

Udal bulegoetako administrazio erregistroan egiten diran inskribapenak euskeraz egingo dira, dokumentuan erabilitako hizkuntza beste edozein izanda ere.

24. Artikulua

Udaleko edozein sail edo bulegok luzatutako ziurtagiriak euskeraz idatziak izango dira, interesatuak eskatuz gero, Udal Euskera zerbitzuko itzulpen zerbitzuak eskainiko jakozalarik.

VIII. LANGILERIAREN BIRZIKLAIA

25. Artikulua

Udal honen helburua, Administrazio honetako langile guztien lan hizkuntza euskera izatea da, hau da, Sail guztietan produzitzen dan guztia euskeraz ekoiztea.

26. Artikulua

Aurreko artikuluan markatutako helburua lortu ahal izateko, nahitaezkoa da, aurretik ezarritako hizkuntza eskakizuna lortuta daukan langileak euskeraz jardutzea; horretarako Udal honek bere esku jarriko daualarik, behar diran baliabide guztiak: materiala, aholkularitza eta mota guztietako laguntzak, trebakuntza programa baten sarturik.

27. Artikulua

Bermeoko Udalak, jagoken hizkuntza eskakizuna lortu barik daukien langileei, euskerako ikastaroetara, trinko zein arruntetara joatea erraztuko deustie, betiere, klase orduen probetxamendu egokia izanda eta markatutako epean lortzeko, eta ikasten doazen neurrian euren lana euskeraz ekoiztu daien.

28. Artikulua

Euskeraz ekoizten dauan langileari ezin izango jako exijitu egiten dauan lanaren gaztelerarako itzulpenik. Itzulpenaren eskaera egon ezkeru, itzultzaileari emongo jako honek itzuli daian.

29. Artikulua

Bermeoko Udala edo bere menpean dagozan udal zerbitzuak zuzenean edo zeharka kudeatzeko eraturako erakundeetan, lekualdaketa dala, igotze, beste edozein bidezko transferentziaz lanpostuan sartzeko, nahitaezkoa izango da lanpostu horrerri jagokon profila gaindituta edukitzea.

Horretarako, Udaleko lanpostuen plantilan sartuta egon beharko da lanpostu bakoitzari ezarritako hizkuntza eskakizuna. Plantila hau urteko aurrekontuei erantsirik joango da, lanpostuez gain, jagokezan hizkuntza eskakizunak ere agertu daitezcan bertan, eta Osoko Bilkurak onartu daizan.

Bestalde, epe egokiaren barruan aurkeztu behar dira, aurrekontu horri jagokon urtean jan eskaintzan sartu daitezcan.

30. Artikulua

Udal Administrazioak jarduera «plangintza» eratuko dau, aurrikusitako helburuak lortu ahal izateko.

IX. LANGILERIA BARRIAREN AUKERAKETA

31. Artikulua

Aurrerantzean Bermeoko Udalak kontratatuko qauzan langile eta funtzionarioak, euren lana euskeraz garatzeko gai izan beharko dira.

Horrela, bada, Udaleko edo bere menpean dagozan udal zerbitzuak zuzenean edo zeharka kudeatzeko eraturako erakundeetako lanpostuei egokituriko profilak euki beharko dabez, lanpostu horreetan garatuko daben jarduera behar dan moduan betetzeko.

32. Artikulua

Lanpostu batera sartzeko, bai funtzionari legez, bai itunpeko lan-kontratu bidez, derrigorrezkoa izango da lanpostu bakoitzari jagokon hizkuntza eskakizuna kreditatzea.

33. Artikulua

1. Lanpostu hornikuntza deialdi guztietan, bai jabegokoan, bai bitarteko funtzionari moduan, baita mugagabeko edo aldi baterako lan-kontratu daukien deialdietan, euskerako froga baztertzaillea izango da.

2. Hautagai batek ere, euskerako proba gaindutuko ez baleu, lanpostua hutsik geratuko da eta horrela jarraituko dau beste deialdi bat egin arte. Hala ere, oposiziogile euskaldun batere aurkezten ez dan suposamenduetarako, eta aldi baterako kontratuak egin ahal izateko, euskera meritu bihurtzea aurrikusi ahal izango da.

X. EUSKERAREN ERABILERA UDALERRIAN

34. Artikulua

Bermeoko Udalak egoki ikusten. dauzan neurriak hartuko dauz, euskera udalerriko esparru guztietara zabaldu daiten, eta orokorrean, gizarte mailan bere

presentzia efektiboa gehitu daiten. Hiru helburu nagusi dira Udalak berak gain hartzen dauzanak, Bermeoko udalerrian euskeraren erabilera normalizatzeari jagokonean:

a) *Zabalkunde funtzionala*: Euskerak, intentsitate progresiboaz, gizarte funtziorik gehien hartzen joango diran planak praktikan jartzea.

b) *Zabalkunde demografikoa*: egoki ikusten diran baliabideak jartzea, erabilera hobetzeko eta hiztunen kopurua handitzeko.

c) *Hedakuntza geografikoa*: auzotegi eta auzune guztietara euskera zabaltzea.

Beraz, Udalak ahaleginak egingo dauz euskeraren presentzia eta sustapena bultzatzeko.

35. Artikulua

Bermeoko Udalak, udalerrri honetako kale, bide, auzotegi, auzune, mendi, ibai eta erreka eta, orokorrean, tokiko toponimia izen ofizialak deterrinatuko dauz, kasuan kasuko, euskaldun jatorria eta grafia errespetatuko diralarik. Dana dala, erromantze edo gaztelerako izenak, horrela bajagoke, horrek ere grafia euskaldunaz transkribatuko dira.

Aipatutako izendazio ofizialetan zalantzarik edo desadostasunik balego, Korporazioak erabakirik egokiena hartuko dau, Euskaltzaindiaren irizpideetara makurtuz.

36. Artikulua

Trafikoko seinaleak, herribideen, kale, zeharbide, eta, orokorrean mota guztietako iragarkiak, euskeraz idatzita egon beharko dabe. Dana dala, partikularrek, Udalaren jabetzan kartelak jarri aurretik, lizentzia lortu ahal izateko, euskeraren presentzia bermatu beharko dala jakinarazi beharko jake. Bardin gertatuko da botere publikoek edonon jarri gura dabezan kartekekaz eta gainontzekoekaz.

37. Artikulua

Bermeoko Udalak neurriak hartuko dauz, garraio publikoetako inprimakiak, abisuak agerbideak, berriemoteak, eta abar, euskeraz izan daitezkan. Berezi azpimarratu behar da, langileria, publizitateko sareak eta errotulazioari jagokonean. Halaber, Bermeoko udalerria abiapuntu edo helmuga daben garraio publikoetako arduradunei, euskeraren normalizazioa gauzatu daiten, ordenantza hau kontutan hartuz jardutzeko eskatuko jake.

38. Artikulua

Bermeoko Udalak neurri guztiak jarriko dauz euskeraren erabilera zuzpertz eta udalerriko esparru eta alor guztietan euskeraren presentzia areagotzeko, bereziki ondorengo helburuetan:

1. Urtean zehar, erabilera publikoko udal eremuan idatzizko jarduera ekintzetan euskera bakarrik erabiliko da.

2. Urtean zehar, erabilera publikoko udal eremuan ahozko jarduera ekintzetan euskera bakarrik erabiliko da.

39. Artikulua

Udal instalakuntzak erabiltzeko, zerbitzuen prestazioak, halaber, hesietan, publizitate tauletan, hormetan, eta abar jartzen dan mota guztietako publizitatea edo kartelak jartzeko ernoten diran lizentzien kontzesiorako, ordenantza hau bete beharko da.

40. Artikulua

Errotuluak jartzeko lizentzia emoterakoan jarritako baldintza, euskeraz izatea gomendatzen da, udal adierazpenetan gomendio hau agertuko dalarik.

41. Artikulua

Derrigorrean, erdara ere sartu behar danean, euskeraz eta erdaraz joango da, baina euskerazko hizkiak bi aldiz handiagoak izango dira.

42. Artikulua

Bermeoko Udalak, ikastetxeekaz lankidetzan, mota guztietako ekintza osagarriak bideratuko dauz, eskola umeen munduan euskeraren erabilera sustatzeko.

43. Artikulua

Euskera munduan jardutzen daben eta ofizialak ez diran taldeei laguntza emongo deusie diru-bidez edota azpiegitura eskainiz, funtzionatzen ari diran beste zentro ofizialen interferentzia edo kalte barik. Gainera, beharrezko ikusten dau Udal honek, euskeraren normalizazioan jan egiten daben talde, organizazio eta pertsona horreekaz lana-harremanak izatea.

44. Artikulua

Bermeoko Udalak, ume, gazte eta nagusientzat euskerazko aisialdiak edo kultur ekintzak sustatuko dauz, batez ere, UEMAK antolatzen dauzan Elejirako ekintzak bultzatuz.

Dana dala, eta euskeraz idazteko eta irakurtzeko zaletasuna, baita hizkuntza honetan sormena potentziatzeko, egoki ikusten dauzan ekintzak bultzatuko dauz, esaterako, narrazioan, poesia eta, orokorrean, literaturan.

45. Artikulua

Bermeoko Udalak komunikabideekaz daukan harremanei jagokenean, komunikabide horreetara bidaltzen diran, ohar, iragarkiak, eta abar, euskeraz idatziak izango dira, eta derrigorrean, euskerazko hizkiak bi aldiz handiagoak izango dira.

Bestalde, komunikabide euskaldunak bultzatzeko asmoz, Bermeoko Udalak, zabalkunde nazionala daukien komunikabideei bidaliko deusie publizitatea.

46. Artikulua

Bermeoko Udalak, bere lana eta beste pertsona edo erakunde eta organizazioen lana koordinatu ahal izateko, bideak urratuko dauz onuragarri gertatu daiten lan bateratu hori.

X. EUSKERA ETA UDALAREN DIRULAGUNTZEI BURUZKOA

47. Artikulua

Kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak.

1. Kultura, kirol, aisialdi alkar1e, musika talde eta bestelakoei dirulanguntzak emoteko orduan, hizkuntzaren irizpideak onda finkatu beharko dira. Ondorioz, Bermeoko Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen daben alkarte eta entitateek, pertsona fisiko nahiz entitate juridikoek, bere jardun subentzionatuetan argitaratzen dabezan idatzi, iragarki, ohar eta gainontzekoak, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erdaraz idatzita emongo dabez ezagutzera. Hala ere, aurretik finkatu dan bezala, euskerari lehentasuna emonez, hau da, idatzizkoan hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango dalarik eta ahozkoan ere, erdaraz baten esaten bakoitzean, euskeraz hiru aldiz esanda.

Propaganda ere,bai ahozkoa, zein idatzizkoa, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erdaraz egin beharko dabe. Era berean, ospakizun konkretuetan; bozgorailu bidez emoten diran mezuak ere, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erdaraz emon beharko dabez.

Subentzio hartzaileek subentzioa jasoko badabe, nahitaez bete behalko dabez baldintza honeek; hortaz, aipatutako xedearen harian eta bere jarduketa eremuan, honako neurriok hartu eta betearaztea jagoko Udalari.

2. Udalaren instalakuntza eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Beraz, Udalak, frontoia, kiroldegia, eta abar, baita hesiak, oholtzak eta zernahi erabiltzeko baimena emateko orduan, hizkuntza baldintza horren barri emongo deusie interesatuei baimen orrietan.

3. Goian azaldutakoaren kontrola Udaleko Euskera Zerbitzuaren esku egongo da, eta ahoz, zein idatzizko adierazpenak euskeratzeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuaz baliatu ahal izango dira, kultura, aisialdi eta bestelako alkar1eak eta taldeak, euren barruko hizkuntza politika normalizatu ar1e.

48. Artikulua

Baldintzak zehaztuz, honakook izango dira betebeharrak:

- *Idatzizkoak:*

1. Iragarki, ohar, kartel, eta abar, euskera hutsez idatziko dira.

2. Euskeraz eta erdaraz egin behar dana kasuetan, goian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

- *Ahozkoak:*

1. Bozgorailuetatik, irrati, eta abarretatik egindako propaganda, euskera hutsean egingo da, baina, ezinbestean, aurretik ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2. Bestelako ekintzetan ere, hau da, hitzaldiak, jaialdiak, lehiaketak, kanpainak (mota guztietakoak, politikoak barne), eta abar, euskera hutsean egingo dira, baina, ezinbestean, aurretik ezarritako baldintzak bete beharko dira.

- *Hitzaldiak:*

Hala ere, hitzaldiek daukien berezitasunagaitik, Udalak zehaztu egin behar dauz ondorengo puntuak:

1. Udalak, bere kultura sailaren bidez, edo beste medio baten bidez, umeentzat eratzen dauzan mota horretako ekitaldiak euskeraz izango dira, jadanik, ume eta gaztetxoek badakitelako euskeraz.

2. Gainontzeko hitzaldietan ere lehentasuna euskerari emongo jako. Horretarako:

a) Hizlariak euskaldunak izan beharko dabe.

b) Giro euskalduna sortuz: propagandan, esku-programetan, aurkezpenetan, eta abar.

3. Hitzaldia euskera hutsez bada, eta derrigorrezkoa bada erdaraz egitea, ondoren, laburpen bat egingo da, baina sekula ere ez dau gaindituko % 25aren portzentaia.

4. Kasu limiteetan ere (hizlaria erdalduna) euskeraren presentzia itxurosoa izango da:

a) Hizlaria, aurretik, indarrean dagoan ordenantzaz ohartaraziz eta euskerari jagokozan baldintzak betetzeko, hitzaldia, edo bere laburpena bidaltzeko eskatuko jako, euskerazko itzulpena berak ez badau egiten, Euskera Zerbitzuan itzulia izan daiten.

b) Hitzaldiaren aurkezpen osoa eta laburpena euskeraz emongo dira.

c) Alkarrizketa zabaltzen danerako, galde-erantzunak euskeraz eginak izan daitezcan, mahaian itzultzaile lana beteko dauan norbait egon beharko da.

49. Artikulua

Hitzaldiez aparteko ekintzetan:

1. Aurkezle lanetan ere, euskerari lehentasuna emongo jako, nahiz eta ikuskizuna erdaraz izan.

2. Ekintza euskeraz ez dan kasuetarako ere, aurkezie euskalduna egon beharko da, ondorengo lan honeek bete ahal izateko:

a) Ekintzaren aurkezpena eta laburpena euskeraz emotea aurretik.

b) Ekintza burutu ondoren, alkarrizketa sortuko balitz, euskeraz izan daiten posibilitatzea, itzulpen lanak eginez. Adibidez, aurkezle bi egotea.

Bestelako ekintzetan ere, gitxienezko baldintzak betetzea ezinbestekoa izango da, batez ere barraketan. Hemen, musikaren arloan, gitxienez % 75ean euskeraz bete beharko da.

50. Artikulua

1. Talde ezbardinek euren propaganda kaleratu aurretik izan daikiezan zalantzak argitzeko, eta, euskera idatzian batez ere, sarritan gertatu ohi diran trakeskeri eta bidegabekeriak gerta ez daitezcan, Euskera Zerbitzuaren laguntzaz baliatzea gomendatzen dau Udalak

2. Euskera Zerbitzuaren bidez, Udalak aldian-aldian, ohizkotasunez burutzen diran ekintzetan, ezarritako betebeharrak guztiak kontutan izaten diran aztertuko dauz.

3. Ekintza horreetan zehar, euskerak, ezarritako tratua jasoko ez baleu, Udalaren esku geratuko da dirulaguntzak emoteko eta bere jabetzapeko instalakuntzak erabiltzeko baimena eta baldintzei buruzko erabakia hartzea.

XI. EUSKERAREN NORMALIZAZIO ETA BATERATU BATEN AZPIEGITURA

51. Artikulua

Ordenantza honen aplikazioa eta horren garapenerako hartu beharreko neurri teknikoen zuzendaritza eta segimendua Udaleko Zerbitzu Teknikoaren menpe egongo da, hobeto esanda, euskera teknikariaren ardurapean.

Zerbitzu Teknikoa Euskera Batzordearen esanetara egongo da, baina euskera teknikariaren aholkularitza izango daualarik proposamenak egiteko erabakia hartu aurretik. Batzordeko proposamenak Organo erabakitzaileek (Gobernu Batzordeak, Osoko Bilkurak, Alkatetzak...) erabakiko dabez.

Bestalde, Euskera Zerbitzuan Itzultzailea ere egongo da, baina, betiere, Euskera Teknikaria izangoda euskeraren normalizaziorako pautak markatuko dauzana, hizkuntzari berari jagokozan arazoetan batez ere; eta itzultzailea teknikariaren esanetara egon beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Bermeoko Udalak egindako edo sustatutako programa guztietan kontutan izango dira erabilera linguistikoaren normalizazioa, Bermeoko Udaleko Euskera Teknikaria, eta beste inor, izango dalarik Udaleko sail eta Zerbitzu guztietara informazioa pasatuko dauana, behar dan moduan azaldu, normalizazio linguistiko hori bermatua izan daiten. Guzti hori akordioa eskumena daukan organoak hartuko dauanaren kalte barik.

Bigarrena: Udalak egindako beste ordenantza edo hartutako xedapenek Ordenantza honetan sartutako xedapen guztiak beretzat hartu beharko dabez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Euskera Batzordea eta Euskera Zerbitzuak behar diran azpiegitura baliabideak eukiko dauz bere esku. bere funtzioak eta betebeharrak zehazki bete daitezcan.

XEDAPEN DEROGAGARRIA

Derogaturik geratzen dira Ordenantza honen azpitik edo maila berean geratzen diran akordio guztiak. bertan xedatutakoaren arabera edo horren kontrajarpenean jartzen badira.

AZKEN XEDAPENA

Udal organo betearazleek zehazki erabaki eta sustatuko dabez. Ordenantza honen garapena eta aplikaziorako behar diran eta egoki ikusten diran xedapen eta programa berezi guztiak.

Bermeon. 1997ko abenduaren 5ean.